



Jakin filosofatzen

**«Uste izatea posible dela,
hori nahi nuke garaiarentzat»**

Nora Arbelbide Lete

♦ **Aspaldikoz kazetariz jantzita, nori galdetuko zenioke zer?**

Hautetsiei. Eskuin muturraren ideiek gero eta botere gehiago dutela ikusten ari naiz, eta hor ariko nintzateke buru-belarri. Zer ari den jokatzeko ulertzeko. Adibide bat emango dut?

♦ **Bota.**

Pierre-Édouard Stérin. Gizonak lau milioi euro inbertitu ditu Miarritzeko errugbi taldean. Pro D2 txapelketan segitzeko eman dirua da, baina ez da filantropiaz ari. Perikles izeneko plan bat dauka, eskuin muturra boterera eramateko. Iritzi publikoan ideia erreakzionarioak erroto nahia dago atzean.

♦ **Zein ideia?**

Seguritatea, arrazakeria, gizon-emazteen esentzialismoa, homofobia, transfobia... Pobrezia eta errepresioa indarturik, estrukturalki gogortzen ari da dena.

♦ **Elkarrizketa luze bat nori egingo zenioke?**

Amama zenari. 36ko gerla ezagutu zuen, frankismoa; beldurra muineraino sartua zuen. Horretaz nahiko nuke hitz egin: herrian, etxean, intimitatean, burmuinean, zer baldintzatzen duen beldurrak.

♦ **Traumez?**

Bai. Transmittitzen direlako. Isiltzera behartua izan zarelarik, hortik ateratzea zaila da.

♦ Louis Michelen gutunei gibleko solasa idatzi zenien. Haren zer hartuko zenuke?

Indarra eta koherentzia. Baina ohartzen ari naiz heroiak ez direla existitzen, eta hobe. Denek baditugu alde ederrak eta alde ilunagoak. Horrek egiten du humano bat humano.

♦ Eta Parisko Komunatik zer nahiko zenuke garaiaerentzat?

Uste izatea posible dela, eta esperimentatzea beste antolaketa kolektibo mota bat. Hezkuntza, etxebizitza, lana, janaria, artea, biziaren aspektu guziak berriz pentsatu zituzten. Deigarria zait liburutegi publikoak ere berriz antolatu izana. Zer den publikoa, zer pribatua, funtsezko gaia da.

♦ Zeruaz aritu berri zarete Miarritzeko Mediatekan. Hura baino galdera irekiagorik?

Izarrek, planetek, konstelazioek berez pizten dute irudimena, eta irudimena euskaratik pasatzea inportantea da. Lapurdi itsasalde honetan euskara zinez ari da galtzen. Zentzua ere galduz doa.

♦ Leihoak zabaltzeko, nora?

Poesia liburuek irekitzen dizkirate leiho anitz. Ohartzeko zein izan daitezkeen biziak sortzen dituen ertzak; nola ihardukitzen ahal zaien edertasunetik.

♦ Poema bat, beraz?

Audre Lorderen *Letania bat, biziraupenaren alde*. «Gu guztiontzat/ une hau eta garaipen hau/ ez gintuztelako bizirauteko sortu».



Itziar Ugarte Irizar